**ERREPORTAJEA** EEBBETAKO ATENTATUEN ONDORIOAK GURE EKONOMIA ETA ENPRESETAN
**GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN · **AGENDA** SAN MIGEL AUZOKO JAIAK HASIKO DIRA ASTEBURUAN

BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko irailaren 21a/IX. urtea/376. zkia



IRAILAREN 11n EEBBETAN IZANDAKO ERASOEK MUNDUA HARA BEGIRA IPINI DUTE

# New Yorkeko eztandaren txinparten zain

BAS Trit.;7 RENT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Signrtako industrialdea - 7. eta 8. pabilaiak

MANTENDU EZAZ U
Z URE AUTOA
GARBI ETA PREST!

GARBIKETA
400,,ta.

GARBIKETA
AUTOMATIKO PUBLIKOA

TAILERRA





MANTENIMENDU OROKORRA • 0110, BALAZTA
Eta FIIEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

GARB1KETA
BEREZ1A
700pta.

GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
50Opta.

SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE






Aretxabaleta • Arrasate • Azpeitia • Beasain
Bergara • Deba • Eibar • Elgoibar • Errenteria
Eskoriatza • Hernani • Nondarribia • Irun
Lasarte-Oria • Legazpi • Mutriku • Pasaia
Tolosa • Urretxu • Zurnarraga • Zarautz

2001 -2002 EUSKARAIKASTAROAK

Euskalduntze maila guztiak, Alfabetatze,
EGA eta Hizkuntza Eskakizunak

Iraupena: Iraita-ekaina.
Erritmoak: Bi ordu egunean.
Ordu eta erdi egunean.

120 orduko ikastaroak
EGA ikastaroa larun batetan.
Irakurtzen eta idazten trebatzeko
oinarrizko ikastaroa (astean 4 ordu).
Mintzapraktika ikastaroa (astean 4 ordu).

Ordenagallu gela
Hezinet, ordenaqailu bidezko Droarama osaaarri.

Ikastaro bereziaklkastetxe, lantegi eta guraso taldeentzat
PREZIO BEREZIAK ikaste, langabetu, jubilatu eta guraso taideentzat.
BekatzeSistemarekin ia dohainik ikasiko duzu euskara!
Ordaintzeko erraztasunak Kutxaren bidez.

16 urtetik gorakoentzat matrikulaldia: Irailaren 3tik 21 era

DEBABE ULIAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Nafarroa Enparantza, 2 - Elgoibar Tol. 943 74 27 31
E-posta: elgoleuskal@udal.gipuzkoa.net



## Energia ekoizpena I
(Garoftako Zentral nuklearra)

Euskal Herritarrok plangintza energetiko deszentralizatu eta orekatua behar dugu. Energia produkzioa zentralizatzeak helburu zehatza du: enpresa konkretu batzuk negozioa egitea (kasu honetan Nuclenorrek). Halaber, guztiz arriskutsua da, istripuen ondorioak zentralaren tatnainaren adinakoak izaten baitira.

Aste honetan Garoñako zentral nuklearraren aurkako martxa egon da. Hona hemen datu batzuk: Garoriako zentral nuklearra Gasteiztik 32 kilometrotara dago, Nuclenor enpresaren jabetzakoa da eta 1971. urtean jarri zen martxan. Lehenengo belaunaldiko zentrala da eta BWR motako erreaktorea du (boiling water reactor). Zentral hauek arriskutsuak izateagatik 74. hamarkadatik USA eta Erresuma Batuan debekatuta daude. Frantziatik ekarritako uranio aberastua darabil erregai bezala (zein errepidetatik pasatzen da'?). Zentral barruan hondakin erreaktiboz betetako 8.000 kupel daude. 20 urtetan 100 aldiz gelditu behar izan dute arazoak izan dituelako (teorian 15 aldiz gelditu behar zuten garbitu eta erregaia sartzeko), eta airera zein uretara zabaltzen dituen ur eta gasak oso kutsakorrak dira.

Espainiar gobernuak baimena beste 10 urtetarako luzatu dio, eta azkenaldian izandako arazoekin (erreaktorea hozteko ura daramaten hodiak pitzatuta daude), istripu arriskua geroz eta handiagoa da. Mota honetako istripu baten ondorioak Euskal Herrian eragin ikaragarria izango luke, batez ere, emergentzia plangintzarik esistitzen ez dela kontutan hartzen badugu, eta kutsadura larriena 30 kilometrotara emango litzatekeela.

Lore P. de Albeniz



# Luzea, zikina eta gaiztoa

Hastear dagoen guda horrelakoa izango dela adierazi du George W. Bushek. Joan den astean New Yorken eta Washingtonen izandako atentatuek Pandoraren kutxa ireki dute. Gorroto eta biolentziaren kiribila etengabe hasten ari da Dorre Bikiak erori zirenetik.

Malkoak amorru bilakatu dira Estatu Batuetan eta amorru honek herrialde horren ikusmena are gehiago lausotu du. Joan den asteko era.soek, Estatu Batuen botere ekonomiko eta militarraren sinbotoak txikitzeaz gain, herrialde horren ukiezintasuna urratu zuten. Manhattan guda leku bihurtu zuten. Metropolia babesten duen Supermanik existitzen ez dela frogatu zuten.

Zuhur jokatzeko garaia da. Guda batek irabazle bakarra izan ohi du: armen industria. Galtzaileak, berriz, asko izaten dira. Gauzak nola dauden ikusirik, galtzailerik handiena, galtzeko gutxi gelditzen bazaio ere, Afganistango herria izango da. Baina, galtzailerik handiena izango bada ere, ez da galtzaile bakarra izango. Estatu Batuetako Armada boteretsuak ere asko du galtzeko gerrillen gerran trebezia aparta duten talibanen tropen aurka. Pakistanen ere, bertako gobernuak Estatu Batuei laguntzea onartu ondoren, muturreko islatniarrek gerra zibila izango dela diote. Mendebaldean, berriz, eraso terroristen beldurrez, gure askatasuna neurri handi batean zapalduko duen estatu polizialak sortzera behartuko gaituzte.

Etorkizun beldurgarria geurea. Bushek gerra luze, zikin eta gaiztoa iragarri du, eta gure agintariek aurkako jarrera sendoa erakusten ez badute, hala izango da. Nazioarteko ordenamendu justuago bat sortu ezean, nork daki ez ote dugun "Air Force One" filmetik "Mad Max"filmera salto egingo.

Alberto Ansuategi

Kexak ..........................................
motz motz ....................................... 8
gehigarria ......................................
faRmazIAk .................................... 19
aGenda ..........................................

**Oharra: Pasa den asteko alean, Juan Mari Elustondok, "Txukuntasuna?" izenburupean idardtako artikuluan, bigarren parrafoaren amaieran,* asteguenetan *jarri beharrean,* astegunetan *jarri genuen.* Asteguena *asteburuaren baliokidea da, eta letra baten gorabehera zentzua erabat aldatu genuen. Barkamena eskatu nahi diogu Juan Mari Elustondori.*

**Okerrak zuzenduz:*

*Joan den irailaren 14ko BARRENeko 375 alean, Ikasbarren ataleko matrikulazio datuetan, Ikastolan DBHko 4. mailan 32 ikasle daudela jarri genuen, eta kopuru zehatza 52 dela esanez deitu digute Ikastolakoek. Beraz, guztira 498 ikasle matrikulatu dira Ikastolan, eta Elgoibarko matrikulatuen kopurua 1.016koa da. Bestalde, Herri Eskolaka matrikulazio berriak 43 dira eta ez 29.*

i.orrzen iRITZIA ESKUTITZAK oloieron adierazinoen eronizuk zunik. Esktitzeo NAN teleic

## GAZTETXEA HANKAZ GORA JARRI ETA GAZTE ASANBLADAKO KIDEAK ERE EGURTU BEHAR AL GAITUZTE?

Beste behin ere komunikabideetan azaldu den bertsioa, bertsio poliziala izan da, ezbairik gabe, nagusi. Kukutza (Bilbo, Errekalde auzoko Gaztetxea), Gasteizko Gaztetxea eta hauekin batera dauden kolektibo ugariek emandako prentsaurrekoak isiltaraziz, komunikabideek argi eta garbi utzi dute berriz ere, diru eta boterearen menpe daudela. Hau da, informazioa kutsatu eta, polizia zein epaile lanak zintzo bete dituztela. Betiko legez, jendeak horrelako montajeetan sinestea bideratu dute.

-Leihoak ipintzeko erabilitako silikona, telefono mobilak, diskete informatiboak, antzerkirako jantziak, erabilera normaleko erremintak... arma hilgarri moduan aurkeztu ziren.

-Kukutza, ehunka gazterentzako biltoki eta bizitoki zena, "Centro de Operaciones de Vizcaya" bezala aurkeztu zuten.

- .... (aurpegi latza behar da !!!)

Kukutzatik kanporatu eta astebetera, Ertzaintzak, bere jokaera errepresiboarekin jarraituz, Gasteizko Gaztetxean sartu eta 17 lagun atxilotu zituen. Ondoren, tratu txarrak, `torturatuak' eta beso hautsiak ere egon ziren.

Telebistan emandako bertsioan "ETA rnkalos" pankarta aurkitu omen zuten bertan. Berriz ere bertsio poliziala soilik eman dute. Gazte Asanbladak argi utzi baitzuen ez zegoela horrelako pankartarik. "Gaztetxea utzi bakean" zioen bertako pankartak.

Eta kasualitatez, egunotan Antiguoko gaztetxea "ezezagun" batzuek erre omen dute.

Hau guztia kasualitatea ez delakoan gaude. Gizarte aldaketa bat aldarrikatzen dugun gazte guztion aurkako kanpaina basati honen aurka, gazte, zein gazte sentitzen den oro animatzen dugu antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera. Honi aurka egiteko modurik onena herri mugimenduetan parte hartzea dela deritzogu.

I.M
N.A.N. 15,399.306
**Elgoibarko Gazte Asanbladaren izenean**

# Urruzunoren begi ezkutua



Zuri-beltzean ikusten dugu sarritan. Ez da beste kolorerik ageri, soilik zuritik beltzera I , dagoen tarte luze horretan galtzen diren gris amaiezinak. Elkarrizketa arrunki errepikatuak, paisaia hamaika aldiz berrikusiak, egunetan bueltaka diharduten pentsamendu iraunkorrak... guztiak grisak, finean.

Detaile ñimiño batek eskaintzen digun argi-izpiak bapatean eta oharkabe kolore harrigarriren bat erakusten digunean, orduan konturatzen gara bakarrik zuritik beitzera dagoen tarte horretatik at beste kolorerik ere badela.

Egunerokotasunaren mantu grisak, ordea, ez dio argi-izpi horri zirrikitu handirik uzten. Geu gara ahalegin bat egin eta begirada zirrikitu horretan finkatu behar dugunak, gainontzean zuri-beltzean ikusten dugunik ohartu ere egin gabe pasako baitugu bizitza. Mantu grisaren azpian.

**Iñigo Otatio**


ASTE KARIA
**BaRRen**

r4atarroa er,parantza, 2
20870 ELGOIBAR
1Y 943 74 41 12
Publizitatea:
tr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@lopagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITAGATZAILEA
Elgoibarko Izarra
Eki ELGOIBARKMARRA

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eli Aizpuru ILLtETAFGAIC IratiAgirreazaldegi, Asier Orbea PuourrATEA Andoilz Agirregomezkolo MAKETARAILEA Bea Ansola ADMINISTGAZGA Arnaia Rodngez GEGEHrilll Jon Pek Uriguen. KOU113011ATZAILEAG Amaia Lariz. Unai Argarate, Eguzkiie Aranbeni, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, MorZabaleta, Leire Urkidi, Olga Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrutxaga, Jon Eugl, Mnboa Andonegi, Kokoe K.E. ela Urruzuna iNPRNIATEGaGedu Koop. E. TIGADA 4.000 ale LEGE GORDALLIA SS.1.033/92 ISSN 11 39.18.55

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurfarazako Kultura Sailak eta Font Aldundiak diruz lasunchaako aldizkaria,*

ztg kutxa

1:D.ANtnly GOITI GRUPO DANOEIAT FITARTA

2001-IX-21

## GALDERAK

• Herritar batek Madalako iturriari buruzko galdera bat egin digu: Zergatik ez dago martxan iturri hau? Guk Udalera jo dugu eta bertako iturginak honakoa erantzun digu: "IV1artxan ipini zenean, astero sabotajeren bat jasan behar izaten zuen, xaboia botatzen zioten eta beste hainbat gauza ere bai. Ondorioz, uraren ordez loreak ipini zituen Udalak bertan, eta ez dago aldatzeko asmorik".

## 11111111

• Emakume bat baino gehiago etorri zaigu BARRENera **anbulatorioko ginekologia sailekoen jokaeraz** kexatzera: "Dinnlienez, ginekologia departamendua Mendarokoaren menpe dago. Agenda Mendaron zabaldu behar omen dute. Gu, ordea, uztailetik ordua hartzeko zain gaude eta oraindik Elgoibarren agenda zabaldu gabe dagoela erantzuten digute. zer da hori? Azterketak eta rebisioak egitea zeinen garrantzitsua den asko azpimarratzen digute, baina nola egin behar ditugu azterketa horiek? Eta norbaitek zerbait larria baleuka? Ez dago honetarako eskubiderik." -esan digu emakume horietako batek.



• Emakume batek honako kexaren berri emateko eskatu digu: "Plaza **Handian futholean jokatzen haur asko egoten** da. Udaletxeko arkupean porteria bat ipintzen dute eta parekoan, bestea. Denok izan gara haurrak eta oso ondo dago jolastea, baina hura ez da Mintxeta. Pasa den egunean, **kotxesillan neraman haurrari ia aurpegian eman zioten baloiarekin.** Bertatik pasatzeko ere arreta handiarekin ibili behar da. Zerbait egin beharko litzatekeela uste dut".

# alkatea banintz

## Elcoibarren bada zer hobetua!



Berdeguneren bat jarriko nuke umeek jolasteko. Bi parke besterik ez daude. Madalakoaren inguruan auto asko ibiltzen da, eta arriskutsua da. eku Ederrekoan, berriz, kolunpioak jolas lekutik kanpo gelditzen dira, Beraz, parke politen bat egingo nttk.e, herrian berde gune eta jolastuki gutxi ditugulako.

Bestalde, astehurutan kanpotik datozen gazteak kontrohttzeko hideak jarriko nituzke. Izan ere, ni San Roken bizi naiz, estazio gainean, eta larunbatetan botilaz eta zikinkeriaz beteta lagatzen dute dena, egoera negargarrian. Hori gerta ez dadin udaltzainek ahalegintxo bat egin beharko lukete, inguruak zainduz eta hazterrak ahalik eta txukunen lagatzeko neurriak hartuz.

**CARMEN ORDOÑEZ**
Ingeniari teknikoa

Barrak, Birrak eta Barreak





# Estatu Batuen aur

*irailaren 1 In Estatu Eatuen aurka eginclaka atentatu terroristek milaka hildakoz gain, ondoríoak sortuko dituzte hoinbat arlotan. Lehen momentutik aipatu dira munduko ekonomiak izango dituen galerok. New Yorkeko eta Washintongeko eztanden txinpartak Eigaibarren ere somatuko ditugu. Herriko enpresari batek eta bankari batek beraien iritzia eman digute. Hauetaz gain, Oregonen (Estatu Batuak) bizi den Gregorio Kortabarriak bertako egoeraren berri azaldu digu.*

## "Ellgolbarren, EEBBetako atentatuek industrian eragingo dute gehienbat"

**IÑAKI IIIIIIRE.** Euskadiko Kutaa

Estatu Batuen aurkako atentatuen ondoren, denek begiratzen diote New Yorkeko burtsari, mundu mailako ekonomiaren etorkizuna jokoan baitago. Irailaren 17an ireki zuten berriro New Yorkeko burtsa, 4 egunez itxita egon ostean. Galerak uste zirenak baino txikiagoak izan ziren. Halere, historiako 6. galerarik handiena izan zen.

Zaila da zer gertatuko den aurreratzea, baina Euskadiko Kutxako bilaki Irurek bere iritzia eman digu. Bere ustez, hilaren 17an Wall Streeten hartu ziren neurriak emergentziazkoak edo panikozkoak izan ziren, "interes tipoak ezin daitezke gehiago jaitsi. EE.BBetatik egindako presioarengatik jaitsi zituen interes tipoak Europako Banku Zentralak. Presio ekonomiko eta politiko itzela egiten ari dira eta EE.BBetan erabakitzen dutena ia mundu guztiak jarraitzen du". Bestalde, ziurgabetasuna edo zalantza da burtsaren etsairik nagusiena. "Estatu Batuetako atentatuak gertatu ondoren ez dago balore segururik boltsan. Babes baloreak deituak, hau da, gorabehera gutxien izaten dituztenak, baina une honetan urrea eta franko suitzarrak dira balore seguruenak. Dolarra ere balore segurua izan da beti, baina orain zalantzan dago. Momentu kritikoa bizi dugu, gerra edo eraso baten moduko gertakari handi baten aurrean egon gintezke-eta".

**ñurgabetasuna edo zalantza da burtsaren etsairik nagusiena**

Elgoibarren atentatuen eragina industria arloak nabarituko duela aipatu digu, "makina erreminta inbertsio handiak eskatzen dituen industria mota da. Beraz, kontsumitzaileen eskaera jaisten bada, arazoak izango ditu. Dena den, urte amaieran ikusiko dira ondorioak, datorren urterako erabakiak hartzen diren garaian, alegia. Orduan jakiten da eskaera kopuruen berri eta inbertsio planak erabakitzen dira.

## "Bengantzia biharrezkua dala pentsatzen da haina baitxa zein izan dan jakitzia ere".

Asko ez diren arren, badira Estatu Batuetan bizi diren zenbait elgoibartar. Gregorio Kortabarria Ansola da horietako bat. Duela 33 urte joan zen Estatu Batuetara artzain lanean aritzera. Gaur egun, Oregon estatuan bizi da, mendebaldeko kostatik gertu. Gregoriorekin telefonoz hitz egitea lortu dugu bertako egoeraren berri eman diezagun. Euskara ederrean erantzun digu. "New York eta Washington urruti geratzen dia, baina herrialde osuan berdin nabaritxu ditxugu atentauak. Holako erasorik ez da inoiz ikusi. Pearl Harbourrekua baino haundixaua izan dala komentatzen dabe hemen". Patriotismoak gora egin duela azaldu digu eta haga



*Gregoria, eskuman, Greg serneamkin*

## orain urtebeter..



EgOibart.

B izimodua elgoibartarra iaz Bikietako baten Bikiak ez dira aterata dago eta semearen ezkont "Johnny Aroze Atentatuan elun jakon ezer pasau

ako erasoa
golbart

beg atuta

## "EEBBek herrialde konkretu hatzuetara esportazioak egitea galarazi dezakete"

**AGUSTIN ARAIVBERM**
**Danohat taldeko Autamozioko Zuzendaria**

**GREGORIO KORTABARRIA. Oragon,** EE.BB erdian jarritako banderak nonahi ikusten direla. Egoera piskanaka normaltzen ari dela dio, "bengantzia biharrezkua dala pentsatzen dabe danek, baina baitxa zein izan dan jakitzia ere. Nere ustez zein izan dan ondo ikertu bihar da eta gero neurrixak hartu. Nazio bat erasotuz gero, beste asko batu leikez harekin eta arazua handitxu. Nazio askon laguntasuna biharko dabe Estatu Batuek ezertan hasi aurretik". Bush presidente egokia iruditzen zaio, "aitxa moduan gogorra da eta holako momentuetan hala izatia komeni da". Bera bizi den inguruan arabiar eta musulman oso gutxi bizi dira, baina nazioan hauenganako errezeloa asko handitu dela aitortu du.



### k Dorre Bikietan

alitatez beteta dago. Mari Carmen Azkue Villar ailaren 11n, goizeko 11:00etan New Yorkeko Dorre tuan zegoen. Urte bete beranduago, jadanik Dorre tzen. Goian ikus daitekeen argazkia Hudson ibaitik n Dorre Bikiak ikus daitezke. Mari Carmen ilobaren "oan zen New Yorkera beste 9 elgoibartarrekin batera. zkontzara jun ginan, bera New Jerseyn bizi da. anhhatanen zauan laneko seminario batian, baina ez o beste aldian zauan-eta".

**New Yorkeko Dorre Bikien aurkako eraso terroristak izan al du eraginik zuen enpresan?**

Zuzeneko eraginak gutxi izan dira oraingoz, baina zeharkakoak gehiago izango dira. Adibidez, hegazkin konpainia garrantzitsu bati 300 milioiko makina bat saltzekotan ginan, baina egoera honekin atzeratu egin beharko dugu, ez baitute erabakirik hartuko gauzak argitu arte. Gero, gainera, beherapenak eskatzeko aprobetxatuko dute.



**Neurri berezirik hartu al duzue?**

**Flannoverren** makina erremintaren bienala egiten ari dira une honetan. Erabakirik hartu aurretik merkatuak hartzen duen norabidea edo tendentziak ikustea erabaki dugu.

**Zer eta zenbat esportatzen duzue Estatu Batuetara?**

Batez ere aeronautikarako makinak esportatzen ditugu. Guztira produkzioaren %8 esportatzen dugu EE.BBetara, 1.500 milioi inguruko fakturazioa.

**Epe luzera gehiago nabarituko al dira eraginak?**

Bai. Hala ere, datozen egunotan Estatu Batuetakoek hartu ditzaketen erabakiek zeresan handia dute. Esaterako, herrialde konkretu batzuetara esportazioak egitea galerazi dezakete. Mundua gero eta elkarlotuago dago eta munduko punta batean gertatzen denak beste puntan eragin itzela izan dezake. Enpresen arteko nazioarteko harremanetan eragin handia izango du.

**Zer eragin izan dezake makina erremintaren sektorean?**

Produktuaren izaerak garrantzia handia du horrelako egoera baten aurrean. Makina erremintaren sektorean inbertsio ondasunekin egiten dugu lan, hau da, proiektu bat pentsatu eta martxan jarri behar da. Denbora eta diru kostua handia da. Gainera, bezero konkretu batentzat eginiko proiektuak eta produktuak izaten dira gehienetan. Ekonomiaren egoera osasuntsua ez baldin bada, jendeak epe luzerako proiektu gutxiago eskatuko ditu.

# Elmbizitzen zergek %7ko igoera izango dute 30 urte aldatu gabe egon ostean

## Elgoibarko tasak inguruko herriekin konparatuz, bajuenak dira

Joan den irai]aren 14an, osoko bilkura izan zen udaletxean eta besteak beste etxebizitzen zergei buruz hitz egin zuten. Katastroko balioak azken aldiz aldatu zituztenetik 30 urte pasatu dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga berriak ipini ditu. Udalak zergak Diputazioak ezarritako oinarriari ehuneko bat gehituz kobratu behar ditu. Gehien kotizatutako ondasunei zerga handiagoak ezarriko dizkiete. Beraz, batzuk orain arte ordaintzen zutena baino kopuru altuagoa pagatuko dute, besteek, aldiz, txikiagoa.

Herri bakoitzean balio katastralak moldatzeko irizpideak ezberdinak dira, industriaren eta etxebizitzen arabera. Ondorioz, bi eratako tasak ezarri dituzte: Etxebizitzentzako eta industriarako.

**Foru Aldundiak azken hitza**

Horiek guztiak kontutan hartuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako balioetan oinarrituz, balio katastralek %7,03ko igoera izango dutela adierazi zuen Alkateak. Balio hori IPCari (% 4,5ekoa izango dela estimatu dute) eta sarrera eta gastuen orekarik ezari aurre egiteko % 2,5a gehituta Iortuko litzateke. Elgoibarko hiri-kontribuzioa % 0,165ekoa izango da, industriala, berriz, 0,215ekoa. Inguruko herriekin alderatuz, bajuenetakoa da. Herritarrei eskutitz bidez jakinaraziko zaie zergadun bakoitzak ordaindu beharrekoa zenbat den, eta ondoren, epe bat egongo da tasei buruzko zalantzak argitzeko eta alegazioak aurkezteko. Hala ere, Udaletik garbi adierazi nahi dute azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiak duela eta beraiek herrirako moldaketa baino ez dutela egin.



*Herritar batzuk orain arte ordaintzen zutena baino kopuru altuagoa ordaindu beharko dute, eta beste batzuek, bajuagoa.*

# Pintik beherakoek abantailak izango diturte Urruzunoko Babes Ofizialeko lehen elmbizitzetan

## Etxeen zozketa urte amaieran egingo dute izena eman dutenen artean



Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenclu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailak ezagutzera eman du nola banatuko dituzten Urruzunon eraikitzen ari diren Babes Ofizialeko lehen 40 etxebizitzetatik 24. 35 urtetik beherako bikote edo familientzat izango dira 20 etxebizitza. Beraien kargura adin txikiko serne-alabak dituzten guraso bakarrentzat eta emakumeentzat etxe hana zehaztu dute. Minusbaliatuentza, berriz, hiru etxe egongo dira Urruzunon. Gainontzeko 15 etxeak bere garaian izena eman eta baldintza egokiak betetzen dituzten hautagaien artean zozketatuko dituzte. Baldintzetako batzuk Eibarko zonaldean enpadronatuta egotea, azken bi urteetan etxebizitza propiorik ez izatea eta azken 10 urteetan dirulaguntza publikorik ez jaso izana dira. Etxebizitzak 2002 urtearen amaierarako bukatuta egongo direla uste dute. Beraz, Babes Ofizialeko etxebizitzen zein etxe kontzertatuen zozketa aurtengo urte bukaeran egitea espero dute. Izan ere, 40 etxebizitza hauetaz gain, kontzertatutako beste 120 etxe ere eraikiko dituzte zonalde horretan.



## Azkaraterako bide zaharreko bi kilometro konpontzen ari dira

Azkaratera bide zaharretik joaten direnek azken egunotan kamioi eta makina artean egin behar izan dute ibilbidea. Izan ere, bideko beheko partean, hasierako bi kilometroetan obretan aritu dira. Bideko zuloak konpontzea izan da lanen helburua. Horretarako, eskabazioak egin ostean, hainbat material erabiliz kapa bat baino gehiagorekin estali dute. Errepidea ez ezik seinaleak ere aldatuko dituzte. Azkeneko lana bidea "slurry" izeneko materialarekin arnaitzea izango da.

Oraingoz, labainkaden kontrako materiala zati batean baino ez dute botako, baina aurrerago Azkarate gainetik Elgoibarrera bitarteko errepide guztia konponduko omen dute. Material honek gidarien zein txirrindularien segurtasuna garantizatuko omen du.



## Eskualdeko emakumeak lan mundura bideratzeko ikastaroa hasi dute IMHn

IMHk, eskualdeko Udaletako Ongizate Sailen laguntzarekin, produkzio egiaztatzaileen ikastaroa hasi du. Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak bultzatutako programaren helburua lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeak prestatzea da.

12 dira abenduaren 20ra arte IMHn prestakuntza jasoko duten emakumeak. Ondoren, praktikak egin ahal izango dituzte datorren urteko urtarrilean inguruko enpresetan. Ikastaroak 319 orduko iraupena izango du eta Makina Erremintako hainbat gai lantzeaz gain, lan munduaren ezagutzarekin harremana duten ikasgaiak ere izango dituzte emakumeok.

## 1.500 eta 2.000 bakuna artean jarriko dituzte gripearen aurkako kanpainan

Joan den astean hasi eta urriaren amaierara bitartean martxan da Elgoibarko osasun zentroan gripearen aurkako bakunazio kanpaina. Urtetik urtera gora doa bakuna hartzen dutenen kopurua eta 1.500 eta 2.000 txerto artean prestatu dituzte aurtengorako. 65 urtetik gorakoek eta gripea harrapatzeko arriskua dutenek hartu beharko lukete bakuna, gainontzekoek, berriz, medikuaren balorazioaren zain egon beharko dute. Osasun zentroan bertan emango dituzte txertoak goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara, baina interesatuek aurrez txanda eskatu beharko dute.

## Gaur, hilak 22, Itxiko dituzte Mintxetako igerilekuak

Aurrez esan genizuen Mintxetako igerilekuak eguraldiak lagatzen zuen bitartean irekita egongo zirela, bada, iritsi da piszinak isteko ordua. Udako denboraldiari amaiera emango diote eta igeri egitea gustuko dutenek Kiroldegi barruko piszinetan izango dute horretarako aukera. Data zehatzik ez dakiten arren, Udaletik adierazi digutenez, inguruko herrietako aire libreko piszinekin batera irekiko dira berriz ere Mintxetako igerilekuetako ateak.

**Nabiz eta Elgoiharren ez egin, Euskal Herriko hiriburuetan "Kotkerik gabeko eguna" izango da bihar, larunbata.**

# AUTOA ERABILIKO AL DUZU "HOTHERIK GABEKO EGUNEAN"?



## PASCUAL MOLINA

**55 urte, metalurgikoa**

Ez dut horretan pentsatu, baina irtenbide egokia iruditzen zait, jadanik nahiko kutsadura dago-eta. Hala ere, ez da norberaren kontua bakarrik, etxekoekin kanpora joateko plana ateratzen bada. autoa hartu beharko dut.

## IZASKUN VELA

**34 urte, garbitzailea**

Bai, derrigorrez hartu bihar dot autua lanera juteko. Batzuk motiborik gabe erabiltzen dabe kotxia, gehixenetan rekorrido motzak itxeko. Ni Sigman bizi naiz, eta sarritan oinez etortzen naiz kalera.





## JOSE RAMON BASTIDA

**33 urte, kamareroa**

Ez, ez dakat autorik eta karnetik ere ez. Herrixan ibiltzeko ez da kotxerik bihar, eta kanpora urtetzeko badaoz trenak edo autobusak.

## ARANTHA ASTIAZARAN

**41 urte, monitorea**

Probatzea ez legoke gaizki. Geure buruari autorik gabe zein gauza egiteko eta noraino iristeko gai garen erakusteko balioko luke. Askotan ateraino bertaraino autoz joatea nahi izaten dugu eta kotxerik ez dugunean, rnugatuta sentitzen gara.





## NEREA IRAZABALBEITIA

25 **urte, administraria**

Baietz uste dot. Baserrixan bizi naiz eta kalera bajatzeko biharrezkua dakat. Hala ere, holako egunak ondo daoz jendia mentalizatzeko, askotan oso "komodoiak" gera-eta.

## FRANCISCO REVERT

**50 urte, espezialista**

Autorik ez erabiltzen saiatuko naiz. Bestela ere ez dut autoa asko erabiltzen. Herrian bertan lan egiten dudanez, erosketak egiteko edo larrialdiren baterako bakarrik hartzen dut.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

IZENA EMATEAN %10eko BEHERAPENA

autimeo afitedet4 tex414 1 6 eateledept.

Zatoz

LARRAÑAGA

AUTOESKOLA

Tel: 943 74 10 11

GAZTE GEHIGARRIA · 2001ko irailaren 21a. IX urtea/376. zkia

# Gaztia Barren

NA1 Z 3;11, 4111

11101L"j



## _ZTATUAJEAK EGImcq MARRAZKETARAKO L')X(10 „itITA PAMENTZIA BEHAR DU9/A

JULIA QUINT 1+4A

Julia Outh anaw · 1ZKETA UZO1 andEniak · Enara Gorostiza OTSAGABE

## BACK TO THE BLUES
### GARY MOORE

Diskoaren izenburuak ongi azal tzen duen bezala, hlues-era itzuli da Garv Moore. Bagenuen irlandarra ederto menperatzen duen estilo horretan berriro entzuteko gogoa. Aurreko bi diskoetan joera berriak jonatzen sinant da. Bestalde, esperimentazio garai horrek ez du zaleen musika egarria asetu. Denetarik egin ılu Moore-ek: rock-a Thin Lizzy-rekin, jazz-fusioa Colosseum II-rekin... bakarka, berriz. batztietan heavy izatent ere hel zitekeen hard-rocka eta. noski. 80eki,,, hamarkada amaieran egin zuen blues an-akastatsua. Dena dela, eta blues-era egin duen itzulera pozgarria bada *ere,* "Back tu the blues" ez da askok espero genuena. Egia da disko beniak "After hours" edo "Still got the bIties" bezalako lanak gogorarazten dizkigula. flala ere. betiko estihia mantemzea logikoa izan an-en. konposizio aldetik ez dut uste espero bezain landua ilagoeiiik. Diskoa osatzen duten hatuar abestietatik,, lau bertsioak dira, Tanean. Johnny "Guitar" Watson-en "Looking back" eta T. Bone Waiker-en "Stonny Monday". Ezin da esart lan txarra denik, ezta gtaxiagorik ere, zuzen ekoizititako diskint haita. Attrreko bi CDek izan zuten harrera makala kontuan izanda, ziur asko. disketxearen presiopean eta harrapataka egin du lan gitarrajole irlandarrak. Dtalarik gabe, Garv Moore lan askoz hobeak kaleratzeko gai da, hortaz, denbont eman diezaiogtm.

Jort Gurrutxaga






## JULIA QUINTANA

# "Gaur egungo gazte modak Eragil

**AURTENGO UDA GAZTEEN ARTEAN TATUAJEEN UDA IZAN DELA ESAN GENEZAKE. AMAITU D1RA KAMIONEROAK EDO MOTORZALEAK BAKARRIK TATUATZEN ZIREN GARAI HAIEK. HORI BERA PENTSATU ZUEN NONBAIT JULIA**

QLJ
ER
ZA
NE
BE
FIC
TA
LA



**Modan al dago tatuajeak egitea?**

Bai, gaur egungo gazteen %90 modan dagoelako tatuatzen da. Tatuajeak katalogotik aukeratzen dituzte orain eta marrazki berdinak daramatzate askok eta askok. Niri ez zait gustatzen beste inork nirea bezalako tatuajea eramatea.

**Zein tatuaje dago modan?**

Deabru txiki bat eta beste marrazki etniko bat dira ikusienak.

**Zerbait berezia ikasi al duzu tatuajeak egiteko?**

Madrilen tatuaje artistiko ikastaro bat egin nuen, Piereingeko kurtsoak ere egin daitezke, baina nik ez nuen horrelakorik egin.

**Nola ikasten da tatuajeak egiten?**

Marrazketarako eskua eta pazientzia behar dira.

**Osasun aldetik instrumentuak asko zaindu beharko dira, ezta?**

Bai, dena da berezia eta erosteko orduan, dena da garestia. Bestalde, osasun aldetik kontu handia eduki behar duzu. Orratzak eta tuboak esterilizatzeko aparatua, "autoklabea", derrigotTezkoa da eta hori oso garestia da.

**Zenbat tatuajek daramate zure sinadura?**

Martxotik hona 56 egin ditut. Guztiak Tagunei eta ezagunei.

**Nori egingo zenioke tatuaje bat? Nolakoa?**

Nire amari egingo nioke. Ez nioke marrazki jakin bat egingo,



ik

# ida tatuatzEn dira"



**ITANA EIGOIBARTARRAK HORTIK BIZITZEA OSO A BADA ERE, 20 URTEKO <A HONEK, EMAN DITU E PAUSOTXOAK MUNDU ETAN. DAGOENEKO 56 JAJE EGIN DITU BERE JN ETA EZAGUNEN ARTEAN.**

zerbait etnikoa nahiago dut.

Zein da orain arte egin duzun tatuajerik xelehreena?

Hanz txiki bat. Baina ez nolanahikoa: habero urdinarekin eta hiru kolorekoa izatea eskatu zidaten.

Eta tatuajerik zailena?

Dragoi bat eta indio bat dira egin ditudan zailenak.



Zeuk ha al daukazu tatuajerik?

Bai, bakarra daukat. Dragoi bat. Gehiago egiteko asmoa neukan, baina piska bat nazkatu egin naiz tatuajeekin.

Lagun askok eskatzen dizu tatuajeak egiteko, ezta?

Bai, lagun gehienei egin diet tatuajeren bat, baina alderantzizkoa ere gertatzen zait: nire ahizpak, adibidez, tatuajea egin nahi du eta nik itxoiteko esaten diot, oraindik gaztea baita.

## "Ez zait gustatzen nire tatuaje berdina beste inori ikustea"

Zenbat balio du tatuaje bat egiteak?

Merkatuan merkeenak 8.000 pezeta inguru balio du. Niri ere zerbait ordaindu izan didate, baina ez da inola ere prezio hauetara urreratzen.

Gogoratzen al duzu tatuaje bat egin zenuen lehen aldia?

Beldur handia nuen baina ez nintzan zerbait geizki aterako zitzaidan beldur. Marrazkitik ateraz gero, zer egingo nuenaren beldur nintzen. Marrazki etnikoak konpontzea erraza da, baina errealistak konpontzea ez da hain erraza.

Inoiz pentsatu al duzu hortik bizitzea?

Bai, baina oso zaila da. Oraingoz ezin dut, gastu asko baititu.

## CABEREEN ETXALDEA

George ()rwell-ek buru ezagun bat baino gehiago idatzi zuen. Bera da esaterako, "1984" liburuaren egilea. Bertan, gizartea, data horretan, hotere totalitario baten mendean biziko zela aurreikusi zuen. Botere hurren agerpen nagusia "Anaia Handia" zen bere eleberrian. "Anaia Handiak zaintzen zaitu" idatzita zegoen hango onialdeetan. Horregatik. gaur egun munduko hainbat telebistetako saio gorrotagarri horiek "Gran Hermano" izena here liburutik hartu dute.

"1984" liburuan zientzia-fikzioa jorratu hazuen ere. "Abereen etxaldea" izenbuntkoan alegoria erabili zuen here ideiak azaltzeko. Idazle ingelesak animaliak aukeratu zituen liburuko protagonista izateko. Animaliek, etxaldearen jabe diren gizakien aurka imultza egingo dute, baina iraultza hori ez da hasi bezain ongi bukatuko. Eric Arthur horixe zen here benetako izeIla, maisulan paregabea idatzi zuen eta gaur egunerako ere oso kontutan hartzeko rnezua helarazi zigun.

**Jon Eugi**



# AuzolandE

UDAKO OPORRETAN LANERA, NORBERE BORONDATEZ ETA SOSIK KOBRATU GABE. ZORATU EGIN AL DIRA GAZTE HAUEK? BERAIEN ZOROAN IDEIAK ARGI DITUZTELA ERAKUTSI DIGUTE ETA BAITA OPORRETARAKO PLANAK PRESTATZEN ONGI DAKITELA ERE. AUZOLANDEGIETAN IZAN DIRA, BAINA LAN EGITEAZ GAIN, ONGI PASATZEKO ASTIRIK ERE IZAN DUTE. OPORRETARAKO PLAN ALTERNATIBOA IZAN DAITEKE ELGOIBARTAR HAUEN USTEZ. ANE PALOMINO, YOLANDA MUNIN, AMAIA MADARIAGA ETA MIREN BEREZIARTUA ALEMANIAN IZAN DIRA AUZOLANDEGIETAN. ALEMANEKO IRAKASLEAK PROPOSATU ETA ELGOIBARTIK GUZTIRA 12 LAGUN JOAN OMEN DIRA TALDE ETA LEKU EZBERDINETAN HAINBAT LAN EGITERA. UZTAILEAN HIRU ASTE IGARO ZITUZTEN BERTAN ETA BERRIZ ITZULTZEKO GOGOZ ETORRI DIRA BUELTAN HONA.



*Miren Bereziartua eta A*

Zein lan egin duzue?

Ane: Yolanda eta ni Sttutgart ondoko herri baten egon gera umientzako parke bat preparatzen eta han autobus zahar bat pintatzen, mniek jolasteko. Egon geran egoitzan atzeratuekin lan itxen zaban talde baten ofizihak zaozenez, eureri laguntzen *ere* lan in dogu.

"Alemaniak hateke fe laguntzen e

Amaia e

Yolanda: Lehenengo astian goguakin jun arren, lanera ohitzia piskat gogorra in jakun: luira mobitxu eta kendu. Goizetan itxen gendun lan batez ere, eta hirugarren asterako ikusi gendun ez zala hainbesterako.

Amaia: Herri txiki baten egon gera Miren eta bixok. Han bi asteburutan festibalak egon zian eta gu organizazivan, sukaldian, kamarera moduan, garbiketa lanak itxen, montajian... ibili gera.

Miren: Tabernako lanetan nahiko ondo moldau ginan, baina beste batzutan montajian ibili bihar izan ginan, pisuak eruaten... Festibalak astebukaeran zian eta egun batzutan ez genduan ezer ere itxen eta hurrengo egunian ordu plla bat sartzen genitxun.



Lan egiteaz gain zer egin duzue?

